

Estás en: diariovasco.com > [Noticias Más Actualidad](#) > [Noticias Cultura](#)

CULTURA

Etxetik alde egiten duen gizon zinikoaren istorioa

Hanif Kureishiren ingeles idazlearen 'Intimitatea' itzuli du Harkaitz Canok

17.09.08 - FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

Vota ★★★★★ | 0 votos ★★★★★



Opina



Ver comentarios (0)



Imprimir



Enviar



Rectificar

DV. Hanif Kureishi in-geles idazlearen nobelarik famatuena, *Intimitatea*, euskarara itzuli du Harkaitz Canok. «Gizon batek etxetik alde egin baino lehentxeago pentsatu eta esaten dituenak agertzen dira eleberrian. Ospa egitea erabaki du, emaztea eta haurrak utzita. Autofikzioko liburua da. Protagonista eta Kureishi ogibide berekoak dira -gidoigile- eta adin beretsukoak, eta badira beste elementu batzuk autofikzioa dela pentsarazten dutenak, adibidez protagonistaren aita, idazle frustratua bera. Hor morboa dago, baina liburua ez da morboa bakarrik», esan zuen Canok atzoko aurkezpenean.


Liburua Britainia Handian plazaratu zenean, 1998an, polemika eragin zuen, autofikzioaren kontuagatik eta protagonistaren kupidarik ezagatik. Kureishik ez zuen argitu nahi izan eleberriak osagarri autobiografikorik bazeukan ala ez.

«Mingarria da»

Harkaitz Canok aitortu zuen nobela honek zirrara eragin ziola bere garaian eta horregatik onartu zuela Txalaparta argitaletxearen eskaintza. Bestela, itzultzaile lanean gutxitan jardundakoa da bera. «Irakurri nuenean, mingarria gertatu zitzaidan. Orain, hamar urte geroago, are gogorragoa egin zait. Hala ere, ez da etenik gabe erdiragarri horietakoa. Baditu bere pasarte lasaiagoak ere, eta horietan bere umore beltz ingelesa erakusten digu Kureishik», esan zuen itzultzaileak.

Atentziona ematen du protagonistaren egoismoak. Ziniko izatera ere heltzen da batzuetan. Belaunaldi baten erretratutzat ere har daiteke liburua, Canoren iritziz. «Thatcherren garaian gaztarotik helduarora pasatu zen belaunaldi horren erretratua izan daiteke liburua».

Canorekin batera Xabier Gan-tzarainek jardun zuen atzoko aurkezpenean. Idazle honek aspalditik zuen lan hau euskaratzeko asmoa, baina adiskideak aurea hartu zion. «Liburu horrek jota utzi ninduen. Zahartu eta dena egin ninduen. Mundu guztiari gomendatzen nion. Sartu zitzaidan kaskoan itzuli egin behar nuela. Halako batean, esan zidaten Harkaitzek egingo zuela. Bi gauza sentitu nituen: amorrua eta lasaitasuna; izan ere, ez nuen lan horrekin oporrik galduko, behintzat», esan zuen Gantzarainek.



Hanif Kureishi. /EFE

<<

1

2

>>

'INTIMITATEA'

Egilea: Hanif Kureishi (Londres, 1954).

Argitaletxea: Txalaparta.

Orrialdeak: 168.

Salneurria: 15 euro.